

# BERRIGARA

zenbakia JARDUN Elkarte Bergara 1994, uztailak 15

## Euskadiko Eskalada Etxapelketa Bergaran




RE OPELAK AIRE GIROTUA DOHAINIK DOHAINIK



*Freska zaitezen!*

Hilabete honetarako promozio baliagarria.



10<sup>o</sup>  
URTEURRENA

TALLERES  
**OLA**

Olabarrena Auzoa, z/g. Tfnoak: 76 33 44/45/46

BERGARA (Gipuzkoa)

Erakusketa ARRASATEN:

Loramendi 2. Tfnoak: 79 05 86



# GIARTZU

## Dermoestetika Zentrua

*Zu ere  
hain  
liraina  
izan  
zaitezke*



### **ORDUTEGIA:**

**Goizez: 9.00-13.00. Arratsaldez: 14.30-20.30**

**Abuztuan: 9.00-14.00.**

**Abuztuaren 1etik 15era eta 22tik hil bukaera  
arte zabalik.**



## Z E R B E R R I D A ?

### MIGUEL ANGEL MULAS

## Kirol Eskalada Txapelketako Antolaketa Batzordekoa

- Larunbatean zenbat eskaladore izatea espero duzue?

- 40 bat etorriko dira, 35 inguru gizonekoetan eta emakumeak gainontzekoak. Emozioa behintzat ez da faltako: orainarte jokatutako diren bi probetan, gizonekoetan, Gotzon Gardezabal eta David Carreterok garaipen bana lortu dute eta emakumeekin beste horrenbeste gertatu da Beatriz Jimenez eta Josune Bereziartuaren artean. Bi tituloak, beraz, gure herrian erabakiko dira, Bergarako Euskadiko Txapelketako azken proba baita.

- Bosgarren edizioan bergarar bat ga-



raile?

- Ez dakit bergararrik izango den. Dena den, Bergara eskaladore kopuruari dagokionez, Euskal Herri mailan oso aurrean dago eta Euskadiko Txapelketa ere hemen hasitzen. Ea Beatrizek irabazten duen gutxienez. Eta eguraldi ona egin dezala...

**"Euskadiko Txapelketako bi tituloak Bergaran erabakiko dira"**

## I T U R R I O N E T I K

### Diskoteka berria jartzeko asmoa Amillagako pabiloietan

Begarako Udalak Amillagako pabiloietan diskoteka bat jartzeko eskakizuna jaso du. Zapelaitz tabernaren parean dauden pabiloietan, zubirantz ematen duen lokal batean jarriko litzateke. Udalak ez du oraindik erabakirik hartu eta datorren astean eskakizuna egin dutenekin biltzeko asmoa dauka gaia atzertzeko. Udala prest legoke eskakizunari baietza emateko baina arazo batzuk ondo aztertu nahi ditu, zarata edota garbitasun kontuak esate baterako. Gauzak bide onetik badoaz, udazken-negurako zabalik egin daiteke.

## ESAN DUTE

"Lau hilabetera mugatzen da dena. Azken finean urte osoan prestatzen zara bi, hiru edo lau hilabetetan dantza egiteko soilik. Gainera, guk ez daukagu txapelketa asko egiteko aukerarik. Aurreak eta bikoteen lehiaketak batzen baditugu ez dira hamabost baino gehiago izaten. Urte osoa ematen dugu dantzak prestatzen eta txapelketak dira egindako lan gogorra jende aurrean erakusteko dugun aukera bakarra.

Bestalde, antolatzaileek nahiago dute soinu-joleak edo bertsolariak dantzariak baino. Beraz, gelditzen zaigun aukera bakarra lehiaketak dira. Gainera batzuk uste dute txapelketa irabazteagatik telefonoak etengabe jotzen duela eta ez da hala. Titulu hauek niretzako eta nire familia edo inguruan daudenentzako dira, besterik ez. Urte osoan egindako lanaren ordaina da, izaten duzun saria, baina aktuazioak ez doaz tituloarekin batera inolaz ere".

**EDUARDO MURUAMENDIARAZ**  
Dantzaria  
DEIA IGANDEA

Errotalde Jauregia, 20.570 Bergara.  
Tfnoa eta faxa: 76 03 97

**Argitaratzailea:**  
Iardun Elkarte  
Masterreka, 13. 20.570 Bergara.  
76 08 19

**Zuzendaria:**  
Gorka Elorza.

**Erredakzioa:**  
Eneko Azkarate, Eduardo Mendibil eta Mikel Elkoroberezar.

**Maketazioa:**  
Eneko Azkarate eta Eduardo Mendibil.

**Publizitatea eta harpidetzak:**  
Alex Azkarate eta Gorka Elorza.  
76 03 97

**Kolaboratzaileak:**  
Jose Angel Mikeo, Estepan Plazaola, Miguel Angel Elkoroberezar, Alex Labaien, Iñaki Eraña, Juan Martin Elexpuru, Josu Oregi, Maripi Laskurain, Nerea Aizelai, Ainhoa Lete, Jon Ander Bengoa, Mikel Lizarralde, Monika Belastegi, Aitziber Aretxaga eta Ainhoa Bikuna.

**Komikia eta marrazkiak:**  
Bitor Rodriguez, Gorka Ortega, Jon Alvarez, Jose Martin Ezenarro eta Julian Ezenarro.

**Portadako argazkia:**  
Benito Cantero.  
Eskaladorea: Beatriz Jimenez.

**Banaketa:**  
Txantxangorri Taldea.

**Tirada:** 3.700 ale.

**Inprimategia:**  
Bertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati).

**Copyright:** BERRIGARA

**Lege gordailua:** SS 50/ 91

**ISSN:** 1130-6599


**BERRIGARA** ez du bere gain hartzen udazkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



Aldizkari honek Bergarako Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura sailaren laguntza jaso du





**AGARRALO COMO  
PUEDAS 33 1/3**

Ostirala: 22.30.

Larunbata: 22.30.

Igandea: 17.00, 19.30, 22.15.

Astelehena: 19.30

(Ikuslearen eguna).

**Zinea**

▼▼ **Leslie Nielsen** aktorea tartean egonda, zentzugabeko umorea nagusi. *Frank Debrin (Nielsen)* tenienteari *Oscarren* zeremonia antolatzea egokitu zaio; bidean hainbat egoera barregarritan murgilduko da. **Priscilla Presley, Fred Ward, Raquel Welch** eta oraintsu zoritzarreko albiste iturri bihurtu den **O.J. Simpson** rugbylari ohiarekin.

**Deiak**

▼ **Benita Gallastegi** eta **Kimu Arrutiren** margo erakusketa Nahikari tabernan.

▼ **Kirol argazkien** lehiaketako lan onenak Kultur Etxean ikusgai. Astebukaeran 12etatik ordubietara eta 6etatik 8etara.

▼ **Debara Bizikleta Martxa** igandean goizeko 10.45etan Plazan. Talde ekolojistek antolatuta.

**Ogia**

▼ **Igandea 17:** Konde.

**Antzuolako jaien barruan hainbat ekitaldi iragarri dira astebukaera honetarako: Gaubelarekin dantzaldia eta rock jaialdia ostiralean, Mairuaren agerraldia, pelota partiduak, joteroak edota dantzaldia larunbatean eta, azkenik, igandean txirridulari proba, herri bazkaria, nazioarteko folklorea, txaranga eta Akelarre taldearen emanaldia.**

**GOARDIAKO FARMAZIAK**

- ▼ **Larunbata 16:** Mozos/Morales.
- ▼ **Igandea 17:** Mozos/Corcuera.
- ▼ **Astelehena 18:** Puy/Irizar.
- ▼ **Asteartea 19:** Guallar/Ruiz.
- ▼ **Asteazkena 20:** Mozos/Morales.
- ▼ **Osteguna 21:** Guallar/Corcuera.
- ▼ **Ostirala 22:** Mozos/Irizar.



**ZUBIAURRE**  
aroztegia

SARRERAKO ETA BARRUKO ATEAK.  
HORMA ARMAIRUAK.  
EGURREZKO ETA PVC-ZKO LEIHOAK.  
ERA GUZTIETAKO AROTZ LANAK.  
Zubiaurre, 2 ☎ 76 15 14 / 76 35 73

Barrenkale, 23 ☎ 76 29 65

**ederTU**  
**ALTZARIAK**

**Amets**



- HERGO eta HOBY karabanak eta RIVIERA autokarabanak.
- Zango erremolkeak.
- Era guztieteko kanping eta karabanentzako osagarriak.

Informazioa: ☎ 76 25 92 / 78 19 50  
**AMETS TAILERRAK**  
Berezano auzoa OÑATI

**DENA**  
**100etik**

**ZURE OPARIENTZAKO**

Simon Arrieta, 3



# SANTA MARINA

## Astebeteko jaiak

**Atzo hasi** eta datorren larunbatera bitartean, uztailak 23, Santa Marinako jaiak ospatzeko hainbat ekitaldi iragarri dira. Gaur, ostirala, arratsaldeko 6 t´erdietan bolo txapelketa herrikoia jokatu da Jubilatuetan eta arratsaldeko 7etan pelota partiduak Frontoian: Osa eta Iturbek osatutako bikoteak Zabaleta eta Oregiren aurka jokatu du eta, ondoren, Samanigo-Oruesagasti eta Oregi II.a-Gutierrez bikoteak izango dira aurrez aurre. Arratsaldeko 7 t´erdietan petrikol dastaketa egongo da Katabixa taldeak alaituta eta ondoren Agustin Toledoren omeneko Boccia txapelketa. Gaueko 10etan zinea aire librean Poligonoko ikastolan eta gaueko 11.30etan Kaixo taldearekin dantzaldia.

Larunbatean, goizeko 10etan, plater tiraketa jokatu da Fagorren, eguerdiko 12etan tortila lehiaketa eta kukainak, arratsaldeko 5etan San Martzialera txirrindulari igoera eta 6etan waterpolo igerilekuetan. Orduerdi beranduago ezkondu eta ezkondu gabekoen arteko futbol par-



Haurren danborrada Santa Marinako jaietako ekitaldirik ikusgarrienetakoa. Larunbatean, iluntzeko 8.30etatik aurrera.

tidua Ipintzan, 7etan kalejira eta 8etan Eliza Nagusian Salbea. Arratsaldeko 8 t´erdietan Musika Eskolako fanfarreak alaitutako umeen danborrada izango da eta 11etan "Camp" dantzaldia Protocolo taldearekin.

Igandean herriko txistularien kalejira 9etan, 10.30etan Bergarako Udal Bandaren kalejira, 12etan Herri Meza Santa Marinaran, Udal Bandaren kontzertua Fraiskoaurin 12.30etan eta jarraian salda eta txorizoa Simon Arrieta enparantzan. Ondoren Xamatx taldearekin dantzak izango dira, 5etan Jubilatuen etxean sari banaketa, 5 t´erdietan ginkana Poligonoko ikastolan eta 7etan txirrindulari lasterketa herrikoia.

Ondoren, txokolata banatuko da Matxiategin.

Astelehenean, berriz, Santa Marina egunean, arratsaldeko 7.30etan Herri Meza Herriko Korporazioarekin eta ondoren Aritzetairen emanaldia. Asteartean 5.30etan danborradan parte hartu dutenentzat merienda egongo da Lasai-Toki elkartearen eta larunbatean, hilak 23, eta Santa Marina jaiak bukaera emateko txirrindulari txapelketa iragarri da 15.30etan.

**Kirolak ere izango du tokirik: waterpolo, txirrindularitza...**

**ANTIA**

ARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.*

Matxiategi, Tfnoa: 76 15 09

**MAKAILO**

Makailau kazuelak **ETXEA** gertatzen ditugu

Ibargarai 15

*Pepelu*

**Ileapaindegia**

Zurradero, 2 behe.

☎ 76 43 07



## Autopistaren txanponekin Deba erreka berreskuratu

Gure ibaien egoera azaltzeko, beraien ertzetatik paseotxo bat eman ondoren bururatzen zaiguna argitaratzea nahiko delakoan gaude, baina, katastrofistak garela esan ez dezaten, Aranzadik egindako ikerketa lana aipatuko dugu.

Bertan dioenez: "Gatzaga inguruan Deba errekaaren egoera oso ona da kutsadura organikoa nahiz ezorganikoa oso baxua delarik, leku hartako ur garden eta oxigenatuak, flora eta fauna komunitate konplexuak faboratzen dituzte. Gatzagatik industrietako isurkinen (materia organiko, sulfuro, deskonposatzen doazen arraba...) eraginagatik erreka itxura guztiz negargarria hartzen du. Ura, guztiz uhertua dator hidrokarburoen lohidura ertzetan ikusten delarik. Eskoriatzatik aurrera, Deba arroaren egoera: Aretxabaleta, Arrasate, Oñati, Bergara, Elgoibar, Mendaro eta Eibarko isurkinen ondorioz, txartzen da".

Debaren egoera horrelakoa bada, errekadarrera ez da hobia: "Aramai erreka nahiko egoera onean aurkitzen da Gesalbar auzoraino, ezkailu eta amurrainek aurkitu daitezkeelarik, hemendik aurrera gauzak okertzeraz doaz psikiatriko, Fagor eta beste industria batzuen hondakinak direla eta. Oñati errekadarrari lehenengo aldaketak herriitik pasatzerakoan jasatzen dituen

isurkinak eragiten dizkiote, azkenaldira, Urkuluko erreka eta antzerakoak direla medio, hobetu egiten da. Antzuolako errekadarra egoera oso onean ez dago, oraindik kontrolatu gabeko isurkinak daramatzen susmoa dago. Azkenik Ego errekadarra, Eibar eta Ermutik pasa ondoren erreka zati kutsatuena bilakatzen da, moeta guztietako kutsaduraren ondorioz ibaiko ekosistema erabat jota dago".

Deba erreka moeta bietako satsadura jasatzen du, bata hirugarren hiri-guneetako isurkinen ezartzen diotena, eta bestea berriz, izugarriko kutsadura sortzen duten industria produktu toxiko, metale, zianuro eta abarrek sortzen diotena. Bi moeta honetako isurkinen nahasketak gure erreka ondo larrigoak dakartzate, eta horrela Deba arroa Gipuzkoatik kutsatuena bilakatzen da. Deskribatzen dugun egoera, hau den bitartean inork ez du konponbiderik proposatzen. Alderdiek ibaien egoeraz udal hauteskundeetatik honantz ez dute hitzik ere egin. Dirurik ez dagoela diote, orain dela lau urte errekadartxo batzuk berreskuratzea planteatu zuten, eta, ezer ere ez dute egin. Hurrengo legealdirako "txixerrekak" berreskuratzea planteatuko ote diguten beldur gara.

Bitartean, ibaiak han eta hemen kanaleratzen jarraitzen dute bertako ekosistemak hiltzorian jarriz. Dirurik ez dago, baina gure bailararako izugarriko diru pila kostatzen diren lan erraldoiak proposatzen dituzte. Abiadura handiko

trenaren proiektua eta autopistarena kostatzen direnarekin gure erreka berreskuratze proiektu integral bat eskatu daiteke. Baina interesak, interesak dira, eta bizi kalitatea agintarien arduretatik urrun geratzen dela pentsa daiteke.

Irtenbide arrazional batek horrelako neurriak proposatu beharko litzuzke:

- Berreskuratze plan integral bat errekadarratik (Aramai erreka, Oñati erreka...) hasiz proiektatu. Epe motzeko helburua erreka denak egoera naturalera bideratzea izango litzateke.

- Etxeatiko isurkinentzat kolektore eta depuradorak eraikiz, erreka ekosistemak berpiztea, plan integral horren helburuen artean egon beharko litzateke.

- Lantokietako isurkinak mozteko neurriak bideratzea. Instituzioak bertako zuzendariekin harremanetan jarri beharko lirateke, kutsadurak arriskutsuena eragiten duten sustantziak desgertzeko neurriak hartzeraz behartuz. Lantokiei urteroko ingurugiro auditoriak exigitu beharko litzateke.

Dirua nondik atera badago, baita zer egin ere. Borondate edo gogo falta ote?

Erreka alde zerbait egiteko prest zaudetenok uztailaren 17an, Deba arroan zehar egingo den bizikleta martxara gonbidatzen zaituztegu.

EGUZKI

## Tiira biraka

BITTOR RODRIGUEZ





**Atzo eguerdian 200 bat herritar bildu ziren Plazan, Udaltzako ikurriñaren 100. urtemuga ospatzeko zabaldua deiarri jarraituz.**

# Ikurriñak alderdi abertzaleak batu zituen

*EAJ eta EAK onartu egin zuten HBk aurkeztutako mozioa*

Udal Txistulari Banda eta Xamatz dantzataldeak alaitutako ekitaldian, ikurriña jarri zen UNEDeko balkoian. Aurretik, asteleheneko Plenoan, HBk aurkeztutako mozioak EAJ, EA eta HBko zinegotzien oneritzia eta PSE-EEren abstentzioa jaso zuen.

HBren mozioan, ostegunean ikurriñaren 100. urteurrena ospatzen zela eta, ikurriña UNEDen jartzea eskatzen zen, "Euskal Herriko nazio eskubidearen ikur bezala". Era berean, herritarrei leihio eta balkoietan ikurriña jartzeko deia zabalitzen zien.

Mozioak partidu guztien oneritzia jaso zuen,

PSE-EErena izan ezik. Alvaro Esparzak, PSE-EEren bozeramaleak zera adierazi zuen: "ikurriña euskaldunon sinboloetako bat da eta ez zaigu ondo iruditzen udaletxeek aktu partidista hauek bereganatzea. Eusko Legebiltzarrak honelako ekitaldiak instituzionalitu beharko lituzkeela uste dugu eta, azkenik, HBk ikurriñarenganako eskubidea eskatzen duen moduan, demokratikoki onartuta dauden sinbolo guztienganako errespetua eskatzen dugu".

Pleno amaieran, Jose Luis Elkoro (HB) pozik agertu zen akordioagatik




Udaletxeko obrak direla eta, ikurriña UNEDeko balkoian jarri zen. Herriko balkoietan ere ikurriñak ikusi ahal izan ziren.

eta hurrengo baterako honelako gaiak azkartasun haundiagoz aztertzea eskatu zuen. Jabier Gabilondok (EAJ) HBren mozioa aurreko egunean jaso zela eta, ez zegoela lehenago aztertzerik erantzun zion.

Bestalde, atzo Ikurriñaren 100. urtemuga betetzen zela eta, komunikabideek tratamendu berezia eskaini zioten gaiari. Anekdota moduan, EL MUNDO egunkarian Jesus Mari Lazkano bergararrak ikurriñari buruz azaldutako ikuspegia: "Ikurriña, borondate amankomunen inguruko

gure proiektu pertsonalen islada. Gune erreibindikatiboa, konkistatu beharreko proiektua".

Beheko marrazkian Lazkanoren "Ikurriña".



## REMENTERIA

### Altzariak

Egongelak / Logelak  
Aukera guztiak / Enkarguak

Artekale 6, Tfnoa: 76 13 29

## GALLASTEGI

### Jostundegia

mahoizko lanerako  
jantziak

San Pedro, 17 ☎ 76 10 85

## EGUREN

### GESTORIA

Maria Pilar Eguren Diez

Kolegiatutako administrazio gestorea

Simon Arrieta enparantza 3, behea.

☎ 76 21 65 / 76 24 45



◆ **Arantzazura peregrinazioa**

Uztailaren 25ean Arantzazura peregrinazioa egingo da. Autobusa goizeko 9etan aterako da Frontoitik eta Zelaizabaletik Basilikaraino bidea oinez egingo da: 10etan penitentzia komunitarioa izango da, 11etan Meza Nagusia eta ordubatean bazkaria, arratsaldeko 4retan Errosarioa eta benedicta eta 5etan itzulera. Autobuserako txartelak 700 pta. balio du eta bazkariak 1.600. Izen-ematea Agirrebeña (San Antonion), Garitano (Zubiaurre), Zatoia (Barrenkalen) edota Aranzabal (Zubietan) komertzioetan.

◆ **Donostia eta Bilborako autobusak ikasleentzat**

"Aixola" Unibertsitario Elkargoak, 1994-95 ikasturtean Bilbo, Leioa eta Donostiara joateko autobusak antolatuta ditu. Hileko kostua 11.000 eta 12.000 pta. bitartekoa izango da eta izena emateko epea irailaren 23an bukatuko da. Interesatuak Kultur Jestorearen bulegora jo dezakete informazio eske. Izena emateko orria betetzeko, 500 pta. eta bi argazki behar dira (bigarren aldia izatekotan argazki bat nahikoa da).



Obrei aurre egiteko, hileroko diru-bilketei esker, 1.250.000 pta. jaso dira jadanik.

**Santa Marina dirulaguntzen zai**  
*Kanpandorrea berriztu ahal izateko*

Santa Marinako parrokiak oraindik ez du Diputazioaren erantzunik jaso kanpandorrea konpontzeko eskatutako dirulaguntzari buruz. Xabier Zubizarreta parrokoaren hitzetan, *"guk eskatutako informe guztiak aurkeztu genituen apirilean eta oraindik ere erantzunaren zain gaude. Kontutan izan behar da oraindik ere Haziendako diruekin balantzea egiten izango direla eta, horren arabera, dirulaguntzetarako horrenbeste izango da. Gainera, gureaz gain, besteak beste, Getaria, Arrasate edota*

*San Vicenteko (Donostian) elizak konpondu behar dira eta horrek eragina izango du guri zuzendutako dirulaguntzarengan".* Urtero elizen obretarako 200 bat milioi pezeta izaten dira eta jasotako eskakizunen arabera diru gehiago ala gutxiago jaso daiteke.

Jesus Laskurain aparejadoreak eginiko aurrekontuaren arabera, kanpandorrea berrizteko lanek 25 milioi pta. inguruko kostua izan dezakete. Parrokia dirulaguntzen zai dago 3 konstruktore ezberdinen proiekturen artean aukeratzeko.

**ONENA**  
**TINDATEGIA**

Barrenkale 29, BERGARA

**IBARGUREN PENTSUAK**  
**Biona pentsuen biltegia.**  
**Bioter produktoak eta haziak.**

San Pedro 3, Tfnoa: 76 23 79 BERGARA

**TXURRUKA AUTOAK**

Taxi eta mikrobus zerbitzua.  
Ibilgailu berri eta erabilien salmenta.  
Era guztietako erreparazioak.  
Garbiketak, etab...

Aitz Iturri - San Lorentzo auzoa BERGARA.  
☎ 76 12 36 - 76 09 30

Agentzia



PEUGEOT-TALBOT

**EXLIKUN**

**BEREZITASUNAK**

Fraiskozuri 6, ☎ 76 51 62  
BERGARA





Gidariak gasolindegia hartzeko aukera zabalagoa izango dute etorkizunean.

## Gasolindegi berriak Bergaran

*Osintxun eta Epelen hiru surtidore jarriko dira*

Bergara inguruan hiru gasolindegi egingo dira datozen hila-beteetan. Batetik, Epele eta Kanpazarren arteko errepidea egin zuen "Construcciones Mariezcurrena" enpresak Epele-Kanpazar errepidean gasolindegi bat jartzeko eskakizuna aurkeztu du Udaletxean eta, bestetik, aspaldiko proiektuari eutsiz, Osintxuko barianteko zubiaren inguruan, errepidearen bi aldetan, beste bi gasolindegi egiteko asmoa dago.

Xabier Gallastegi Hirigintza Batzordeburuaren hitzetan, "Osin-

*txukoak aspalditik dauka Bergarako Udala eta Diputazioaren baimena baina atzeratzen joan da eta ez dakigu zebatz-mebatz noiz egingo den, aspaldiko kontua baita. Prorroga ere eskatuta dauka eta ez dakigu Madriletik beste baimenen bat jasotzeko zain dagoen. Epelekoa jarri behar duenak, berriz, orain hilabate batzuz hirigintza informazio eskakizuna aurkeztu zuen eta, printzipioz, ez dago inolako eragozapenik, zaborteziaren inguruan kokatuko litzateke".*

### ◆ Terapia Okupazionala Jubilatuetan

Urriatik aurrera Jubilatuetako Terapia Okupazionalako ikastaroetan parte hartu nahi dutenek konserjerian eman dezakete izena. Yoga, eskulanak, oleoa eta abesbatzaren artean aukeratu ahal izango da eta, eskariaren arabera, baliteke igeriketa, pertsonal zainketa, antzerkia, poliestireno, erreposteria eta saskigintza ikastaroak antolatzea baita.

### ◆ Danborrada


San Martinetako haurren danborradan parte hartu nahi duten haur guztiei dei egiten zaie izena eman dezaten hil honetan Kultura Etxean. Izena eman daiteke goizean 10etatik ordu batera eta arratsaldean Setatik 8etara.

### ◆ Elgetako zozketa

Uztailaren 2ko zozketan, 435 zenbakia (mendi bizikleta bat) eta 517 zenbakia (2 urdaiazpiko) sarituak izan dira.

### ◆ Balkoi lehiaketa

Elgetako Udalak antolatuta, balkoirik ederrenaren lehiaketan parte hartzeko izenematea uztailaren 20ra arte egongo da zabalik.



## KORTA-ZAR

**Txokolategia**

**Pintxo eta ogibitartekoen espezialitatea**

**OSTIRALETAN GOIZEKO 9 ETATIK ZABALIK**

Barrenkale 16, ☎ 76 20 62

## KONDE



Burdiñate, 1 ☎ 76 02 57

P  
A  
N  
A  
D  
E  
R  
O  
K  
U  
A

A  
R  
R  
A  
N  
O



**Taberna**

Kruz Gallastegi BERGARA

## ZABALETA ERROTULOAK

**Mota guztietako errotuloak.  
Fatxadak, eskaparateak...**

Amilaga (Gasolindegi ondoan). Tfnoa: 76 57 34



# Osasuna

## Pikatadak

**- Uda partean pikatadak ugaltzen dira. Zeintzuk dira arruntenak?**


- Bueno pikatadak udan bai baina urtean zehar ere izaten dira, bai etxean, mendian edo itsasaldean. Egia da udan gehiago izaten direla, bai erleenak, erlaminuenak, ezpata (*tábano*), eltxo, armiarma, itsasoko medusa edo kirikixoenak edota asun eta txindurrienak izaten dira normalean. Era berean, odola atera eta eztena sartzen duten pikatadak desberdinak behar dira.

**- Sintomak ezberdinak izango dira...**

- Nagusiki lau sintoma ezberdin daude: miña, haunditzea, gorritzea edota molestiak. Inoiz egin behar ez dena hazka egitea da eta eztena sartuta baldin badago, lehenengo atera eta sartuta dagoen benenoa ateratzeko *zauria* zapaltzea komeni da. Adibidez, erleei alergia baldin badiezu, eta asko haunditzen bada, amoniakorekin tratatu edo medikuarengana joan.

**- Zein tratamendu gomendatzen da erabiltzea?**

- Erle, erlaminu, ezpata edota eltxoen pikatadak badira, lurra eta urakin (edo txistuarekin bestela) buztina egin eta pikatada jaso den lekuan eman daiteke; baita berakatzaz mazpildu eta bertan eman edota mazpildutako zainbelarra (*llantén*) bestela; limoia,



**ALBERTO ALTUBE**  
(*medizina alternatiboa*)

perejila edota porruaren juguaz ere efektu bera lortzen da. Ezpata eta eltxoen pikatadetarako izotza ematea ere oso ondo dator. Eta asun eta txindurrienak badira, ur hotza eta ozpina (neurri berdinean nahastuta) edo

ur hotza eta bikarbonatoa. Armiamaren pikatada baldin bada, berriz, gatzura eta ozpina eta medusa batena bada, itsasoko gatzura eta ozpina (itsasoko ura eta norberaren txisa ere eman daiteke, txisak amoniakoa baitauka).

Garrapataren kasuan, odola txupatzen azalean pegatuta geratzen direnez, olio edo baselina eman behar da eta gero tiratu eta burua atera, bestela ez da ezer egiten.

Itsasoko kirikixoak pikatuz gero, berbenarekin enplasto bat egin behar da; zartaginean berbena bota, pasada bat eman, arraultzaren zuringo harrotua nahastu eta tortila moduko bat egin; bestela, olio beroaren tantak ere eman daitezke. Eta haunditzen bada, arnika edota aingerulora eman, infusio bat egin.

**- Eta eltxoak etxera ez sartzeko zer egin daiteke?**

- Etxeko leihoetan geranioa edota albahaka jarri ezker, usainak ez die moskitoei sartzen uzten. Eta horrekin batera, "*Udako botikina*" deitzen dudana eskura izatea beti ere komenigarria da, bertan geranioaren esentzia, buztina, limoia, gatzura edota amoniakoa sartuz. Prebenitzeko, badaezpada...

### "Moskitoak etxera ez sartzeko leihoetan geranioa edota albahaka jar daiteke"




Pikatada arruntenak moskito, ezpata, erle eta erlemuinenak izaten dira.

 **DEBA GARAIA**  
INMUEBLE ETA FINANTZA AGENTZIA  
Arrasate / Bergara / Elgoibar  
T. Aranzadi, 2 behea. ☎ 76 21 80 - 76 06 37

**Sugoi**  
ERLOJUAK, ARTIKULO ELEKTRONIKOAK, KALKULADORAK...  
Irizar pasealekua, 2 behea  
☎ 76 59 54 BERGARA

**ARREGI**  
Eraikuntza materialeak  
Biltegia Teileria ☎ 76 27 93  
Labegaraita Auzoa





# TRIKITIXA ESKOLA

## SOINUA eta PANDEROA

### DATORREN IKASTURTERAKO AURREINSKRIPZIOA

- KURTSO HASIERA: **1994ko irailaren 21a**
- KURTSO AMAIERA: **1995eko ekainaren 10a**
- MATRIKULA EPEA: **1994ko irailaren 9a**
- ORDUTEGIA:
  - **Asteazkenetan: 16.00-20.00**
  - **Larunbatetan: 9.00-14.00**
- KUOTA:
  - **1.800 pzta PANDEROA**
  - **2.500 pzta. SOINUA**



Ezagutu ezazu **LILURAn**  
benetako ongizatea



**GURE MEDIKU  
ESPEZIALISTEKIN**

### ESTETIKA ESPEZIALIZATUA

Mediku homeopatekin elkarlanean jarduten dugu medikuntza estetiko eta prebentiborik eraginkorrena lortzeko.

Etor zaitez Bidekurutzeta kaleko 7 zenbakira edo deitu 76 31 71 telefonora, goizeko 9.30etatik iluntzeko 8.30etara astegunetan edo 9.30etatik 14.00etara larunbatetan.

Zure edertasuna zure osasunaren parte delako, biak era pertsonalizatuan zaintzen ditugu.

LILURAn, zeure arazo pertsonala diagnostikatuko dizugu, doan.

**ABUZTUAN ZABALIK!!**  
Astelehenetik ostiralera (9.30-18.30)



# Diskoa grabatzen

## HOR KONPON

### Koldo Lizarralde, talde oñatiarraren kitarrarekin eta Fran Iturbe diskoaren ekoizlearekin berriketan

**Koldo Lizarralde eta Fran Iturbe Hor Konpon rock talde oñatiarraren lehen diskoa grabatzen ari dira. Eurekin izan gara Donostiako ELKAR grabazio etxean.**

**- Noizko Hor konponen diskoa?**

- Ez dakigu. Asmoa Durangoko azokan argitaratzea da, baina behar bada aurreratu egingo da... Hil honen 6an hasi ginen diskoa grabatzen eta 21an amaituko dugu.

**- Nola sortu zaizue ELKAREkin grabatzeko aukera?**

- Iaz, Euskadi Gazteak antolatzen duen maketa lehiaketa irabazi genuen eta 300.000 pzta.ko saria eman ziguten. Diskaetxe ezberdinekin harremanetan jarri ginen eta azkenean, ELKAREkin akordio batetara heldu ginen. Martxoan single bat plazaratu genuen bi abestiz osatua, eta orain diskoarekin ari gara.

**- Nortzuk osatzen duzue taldea?**

- Momentuan, Xabier (kitarra eta ahotsa), Oskar (bateria) eta nik neuk (kitarrak eta ahotsa).

**- Eta Franek ze lan egiten du?**

- Produksioaz arduratzen da. Diskaetxearekin harremanetan jarri ginenean produktore batekin lan egin nahi genuela adierazi genien eta Fran Iturbek ondo ezagutzen gaituenez bera proposatu genien. Baietza eman ziguten. Bestalde, Franek bajua eta kitarra batzuk ere grabatuko ditu diskoan. Beré lana oso garrantzitsua da. Gauzak ondo neurtzen ditu, musika eta erritmoak ondo landu eta inprobisaziorako detalle gutxi lagatzen ditu.

**- Beste kolaboraziorik izango duzue?**

- Ritxar Cuevasek soinua sartuko du abestiren batean. Zuzeneko emaldietan gurekin aritzen da.

**- Zein ildotik doa Hor Konponen musika?**

- Orain dela urte batzuetako musikarekiko aldaketak izan direla uste dut. Seattle-ko mobida, grunge musika, ildo horretatik goazela uste dut. Pearl Jam oso gustoko dugu eta hori nabari da gure musikan, kitarra gogorragoak, landuagoak erabiltzen ditugu, erritmo ahusturak... Negu Gorriak eta Bizkar Hezurra ere asko gustatzen zaizkit... Hitzak, bestalde, korrosibo xamarrek dira.

**- Fran, kontaiguzuzure lana...**

- Esan daiteke lan gogorrena entsaio lokalean egin dugula. Instrumento bakoitza landu dugu bertan eta hemen estudioan teknikoaren (Cesar Ibarretxe) eta taldearen arteko zubi lana egin dut.

**- Lehen ere produktore lanak egin izan dituzu?**

- Josi Y Los Javisen diskoan aritu naiz.

**- Eta La Duda?**

- Kitarra jotzen duen Bilboko lagun batekin eta Aitor Aranbururekin batera (Seska, Berakatz Band, Molestones), disko bat grabatzen ari gara Gasteizko VICO diskaetxean. Astiro goaz eta ez dakit noizko argitaratuko den.



Cesar Ibarretxe (teknikoa), Koldo Lizarralde eta Fran Iturbe ELKAREko estudioetan.



**C**astor Urisabel, Andoni Alberdi eta Josean Arenaza bergararrek lehorreko lanak alde batera utzi eta itsasoa bihurtu dute lanbide.

Hirurek motibazio desberdinak izan dituzte itsasoratzeko. Urisabel 14 urterekin abentura bila itsasontzi batean sartu zen eta orain 45 urterekin, duela urtebete, utzi du itsasoa. "14 urterekin bajurako itsasontzi batera perolak garbitzera joan nintzen, Bermeoko "El Horizonte Abierto" itsasontzira. Soldadutza egin ondoren makineta ibili nintzen eta azken 13 urteotan sukaldean ibili naiz. Bajurako untzian Gineako Golkora joaten ginen atuna arrantzatzerara. Lau hilabete etxetik kanpo pasatzen genuen eta beste bi etxean geratzen ginen".

Arrantza untziez gain, Urisabel 17 urterekin merkante alemaniar batean untziratu zen. Ikasketak ere egin ditu, 2. mekaniko nabal tituloa eskuratu zuelarik. Horren ostean makineta hainbat urte pasa zituen eta lan horrekin aspertu ondoren sukaldari lana hartu zuen. "4 hilabetetarako joaten ginenean aurrez lista bat egiten nuen elikagaiekin. Fruta eta berdura izan ezik beste guztia izoztua eramaten genuen. Gero portu desberdinetan gelditzen ginenean elikaga-



Andoni Alberdi kapitainaren gelan lanean.

# Itsasgizonak: Bergarako marinelekin

**Euskaldunek eta itsasoak beti izan dute lotura estua, baina batez ere kostaldeko herriek. Barrualdeko marinela famatuak ere izan dira eta gure herrian ere badaude marinela. Beraiekin izan gara eta eurek esandakoaren arabera, itsasoan ere krisi garaia dira nagusi. Halere esperientzia aberasgarri eta kontu xelebreak ere bizi izaten dira itsasoan.**

iak erosten genituen, "El Viejo" k (kapitaina) esaten zuena erosten genuen". Urisabel ibili izan den barkuetan, gehienak euskaldunak eta galizia-

rrak izaten ziren. Baina azken urteetan, filipinarrak hasi dira hartzen tripulaziorako. Horrela itsasontzi batean kultura eta arraza ezberdinetako

pertsonak elkartzen ziren. "Ni 11 hilabete etxera etortzeke izan naiz. Marsellatik Gineara joan eta etorri egiten ginen. Emaztea Marsellara etor-

**HEMEN**  
edertze aretoa

**Clean + easy** (argizari epela) depilatzeko metodoa.  
Pertsonala, higienikoa eta botatzekoa.

Matxiategi, 36 behe (San Martin ikastetxearen parean) ☎ 76 58 88

**ABUZTUAN  
ZABALIK  
9.30-12.30**

**JOSE  
LUIS  
eta  
MIKEL**  
URTEAGA, 6

- Besaulki eta tresiloen konponketa eta tapizaketa.
- Etxebarruen dekorazioa

☎ 76 07 23 / 76 50 37 / 79 35 17



tzen zen ni ikustera. Gogorra izaten zen, baina batez ere familiarentzat. Istripuak ere izan ditut. Bi alditan "lumak busti" (naufragatu) ditut. Bata Hamburgon eta bestea zikloi batekin Estatu Batuetan. Orain ez nintzateke itsasontzi batera lan egitera joango. Oso gogorra da. Ez dago lanik, Hego Ameriketakoak eta filipinoak hartzen dituzte lanerako gutxiago ordaintzen baitiete".

Urisabel goizeko 5etan jaikitzen zen ogia egiteko eta goizeko betarako guztiek gosaltzen zuten. Goizeko 10etan kafea hartu eta 11,30etan, berri, turnoka bazkaldu egiten zuten. Siesta egin ondoren, arratsaldeko betan, afaldu egiten zuten eta ondoren, telebista ikusi edo billarrean jokatu.

**160 kg kokaina barkuan**

Andoni Alberdiren ama mundakarra da, txi-



Andoni Alberdik abentura ugari bizi izan ditu itxasuntzietan.

kitatik udaran Mundakara joaten zen eta han hasi zen itsasoaz maitemintzen. 17 urterekin erabaki zuen itsasgizona izan nahi zuela eta berak dienez etxekoei ez zitzaien asko gustatu bere erabakia. Hori ikusirik bere amaren Pasaiako lehen-gusu batekin itsasoratu

zen lehen aldiz. "Bi hilabetez Europaren iparraldean zehar ibili nintzen. Hilabete batez engrasadore lanak egin nituen eta gero "txo" (platerak garbitu, pintatu....) bezala hartu ninduten. Esperientzia gogorra izan zen, amak espero zuen utziko nuela, baina

oraindik hor jarraitzen dut".

Portugaleteko Eskola Nautikoan burutu zituen ikasketak eta orain kapitain titulua du. Maiatzaren 31n etorri zen 8 hilabetez itsasoan izan ondoren. "Karibe aldean izan gara "butanero" (gasa daraman itsasontzia) eta negu gogorra jasan behar izan dugu. Gainera orain itsasontziak oso espezializatuak daude eta egun osoan zehar lan egin behar dugu. Estatu Batuetan eta Mexikon barkua kargatu eta Jamaika edo Holandar Antilletan deskargatzen genuen".

Itsasoan ere krisia nabari da eta lehen kapitain eta ofizialak norvegiarrak izaten baziren, azkenaldian, konpainiek, merkeagoak direla eta, espainiarrak kontratatzen dituzte. Baina orain espainiarrak garestiak irtetzen direnez, europear ekialdeko kapitainak hasi dira kontratatzen. Horrela itsasontzietan normala da



Jolaserako uneak ere izaten dira itxasoan.



filipinarrak, kolonbiarrak, euskaldunak etabak nahastuta ikustea. Alberdik adierazi digunez, izan den azken bidaian marinel normal batek hilean 55 mila pzta irabazten zituen. Alberdik mundu osoa ezagutzeko aukera izan du, baina bakarrik azaletik ezagutzen ditu lekuak. *"Behin 1988ko azaroan Singapurretik Hong Kongera gindoazela, ziklon batek barrapatu gintuen eta batek baino gehiagok pentsatu zuen ban geldituko ginela. Halere, inoiz ez dut naufragatu eta eskerrak"* dio Alberdik. Anekdotarik ere izan du, batez ere kolonbiarrekin. *"Aurten go otsailean Estatu Batuetan barkoan 160 kg kokainarekin barrapatu gintuzten. Inork ez genekien hura ban zegoela. Poliziak hartu gintuen eta komisariara eraman, ban fitxatu gintuzten. Nabiko tratu txarra eman ziguten poliziek. Hori ikusiz, konpainiak tripulazioa aldatu zuen, kolonbiarren ordezkurarrak sartu dituzte".*



Josean Arenazak ez du esperientzia aberasgarriegirik bizi bere itxas-bidaietan

*zen eta ondo irabazten genuen. Oso handia zen eta liburutegia, igerilekua, zinema etab. zitu-*

*en. Ondoren 2. ofizialaren tituloa atera nuen eta itsasontzi batera joan nintzen. Hara sartzean*


*zera esan zidan kapitainak: "Barku honek gauza on bat du, ez duzula txarrragorik aurkituko", eta arrazoia zuen. Barkua Ingalaterratik ihes egin da zegoen, ez zuelako errebisioa pasatu".*

Arenazak lau hilabete oso gogorrak pasatu zituen itsasontzi horretan eta orain langabezian dago. *"Egoera oso txarrean gaude, itsasoan ez dago lanik. Gainera konpainiek nabiago dute filipinarrak edo kolonbiarrak kontratatu. Guk titulo bat lortzeko 5 urte pasatu behar ditugu eta filipinarrek, biru hilabete ikastaro batekin titulo berbera eskuratzen dute. Ekialdeko marinelak ere min asko egiten digute, hor ingeniari nuklearrak makinak garbitzen aurki daitezke".*

Egoera ikusirik Arenazak ez du oso argi itsasoan jarraituko duen. *"Orain gustatuko litzaidake jarraitzea, baina lehorrean lanen bat aurkitzen badut, hobeto".*

### Itsasoan ere langabezia


Josean Arenazak Portugaleten egin ditu ikasketak eta orain bigarren ofizial tituloa du. Berak lanbide bat bilatzeko egin zuen Nautika eta orain langabezian dago. Horren errua garai berriek dute, itsasontziak gero eta automatizatuago daude eta langile gutxiago behar dira barkuetan. *"Hiru aldiz irten naiz itsasontzietan eta Europa eta EEBBak ezagutzen ditut batipat. Baina onetik txarrera joan naiz. Lehen barkua oso ona*



Castor Urisabelek urteak eman ditu itsasuntzietako sukaldeetan.



# Nork irabaziko du Mundiala? Partiduak jarraitu dituzu?




**Jose Manuel Hernández**  
54 urte, langabetua

Italiak, talde indartsuena da eta horrez gain suertea dauka. Batez ere astebukaerako partiduak ikusi ditut.



**Naiara Aranburu**  
19 urte, ikaslea

Ez dakit mundialari buruz ezer, ez zait futbola gustatzen. Telebistarekin lehenago heltzen denak aukeratzen du zer ikusi, ez da polemikarik egon.




**Antonio Rodríguez**  
52 urte, langilea

Brasilek. Nahiko partidu ikusi ditut, gauetan bakarrik. Eztabaidarik? Ez, telebista aparailu bat baino gehiago daukagu eta.



**Colette Descamps**  
31 urte, langilea

Ez dakit, Italiak beharbada, nere alabak Brasil esan arren. Ez dut mundiala jarraitu ez bait zait futbola gehiegi gustatzen; nahiago dut tenisa adibidez.




**Jabier Lazkano**  
49 urte, langilea

Brasilek, kalitate teknikoaz gain, presioa eta indarra erakutsi duelako oraingoan. Ia partidu guztiak ikusi ditut eta etxean ez dugu eztabaidarik izan.



**Concha Martínez**  
40 urte, langilea

Ez zait inporta, ez dut futbola inoiz ikusi eta telebista itzaltzen dut futbola dagoen bakoitzean.



**POL-POL**

TABERNA

☎ 76 07 78

**DEPORTIVO**

TABERNA

☎ 76 01 51

**ES** foto sistema *APBéniz*

**ARGAZKIAK  
ORDUBETEAN**

- ✓ Diapositiba errebelatzeak.
- ✓ Karneterako argazkiak momentuan.
- ✓ Argazki materialen salmenta eta konponketak.
- ✓ Jaunartze, bataio eta ezteietako erreportaiak.

Kruz Gallastegi, 2 ☎ 76 00 50





## Hau bukatu da

Egun pare bat eta akabo. Hilabete luze batean askoren bizipoza eta beste hainbaten ametsgaiztoa izan dena bukatzeaz dago. Bai, Munduko Futbol Txapelketaz ari naiz, partidu orduan kaleak hutsik utzi dituen lehia sorta horri buruz. Hau idaztean ez dakit nortzuk jokatu duten finala, baina egia esan ez zait batere inporta. Bizitzako beste alorretan gertatzen zaidan bezala, futbolearen ere txikiaren alde jarri izan naiz beti, eta dagoeneko, Nigeria, Bolivia, Saudiar Arabia eta abar etxean daudela, ez diot interes handirik antzematen EEBBetan jokatzeko denari. Beno, egia esan Bulgaria aurrean egotea ez litzaidake gaizki irudituko.

Clementeren selekzioa ere etxean da jada. Hauek ere hainbat buruhaste eman dizkiete euskalerritar askori. Abertzale peto-petoak ere urduritasunak jo ditu Salinas, Bakero eta beste guztiak zelaian egon direnean. Batzuk "Espainiako" selekzioa izan arren. Euskal Herriko jokalariek daudelako, beste batzuk aldiz "Espainiako" selekzioa izateagatik, Italiaren alde, baina gehienak telebista aparailuaren parean. Ni behintzat pozik nago, ez dudalako imajinatu nahi aurrerago jarraitu izanez gero, zer gertatuko litzatekeen. Orain arteko egunkariak irakurri Amerikako konkista berriaren zain egongo dira batzuk, baina zorionez oraindik itxaron beharko dute. Abertzalekeria merkea? Ez mese-dez.

Txapelketa hasi baino lehen partidurik ikusiko ez nuela pentsatzen nuen nik, baina onartzen dut, azkenean nire ingurunea ni baino indartsuagoa izan da. Italia-Nigeria partidua telebistaren aurrean pasa nuen, eta kakazaharra! betikoez irabaztea ere...

**Mikel LIZARRALDE**



## Justo Garateren heriotzaren inguruan

Komunikazio azkarraren garaian omen gaude. Munduko edozein bazterretan gertatu, eta handik ordu laudenera ezagutzen ei dugu albistea. Teletipo, satelite, fax eta beste hainbat tramankulu eta aurrerapen informazio zehatz eta arinaren zerbitzutan daudela diote. Hala da batzutan: zenbait politikoren ibilerak, lasterketa-saio eta guzti, agudo asko eskaintzen dizkigute; futbolista eta txirrindulari ospetsuen gorabehera eta huskeria txikiak ere letra handiz irakur ditzakegu; *jet-set*-eko kideen zorakeria guztiak berehalaxe heltzen zaizkigu. Baina, zoritxarrez, ez da beti horrela izaten.

Orain arte esan dugunaren adibide garbia joan den asteen izan genuen. BERRIGARA aldizkariaren azkenengo alean ikusenezaketen moduan, uztailaren 2an, zapatuan, hil zen Justo Garate Bergarako seme, mediku, ikerlari eta idazle ezaguna Argentinako Mendozan. Ba, oso oker ez banago, hurrengo asteazkenera arte ez zen gure eguneroko komunikabideetan Garateren heriotzaren berririk azaldu. Pittinka-pittinka, ondorengo egunetan agertu zen periodikuetako kultura-orrialdeetan, luzetxoago edo laburtxoago, Justori buruzko aipamen bat. Albistea lehenengo orrialdean ez dut uste periodiku bakar batek ere argitaratu duenik. Oraindik okerrago; bere burua oso euskaltzaletzat duen egunkari batek ez du gai honetaz txintik ere atera.

Dena den, Bergarak aitortu dio Justo Garateri berarekiko zuen zorra azken urteotan eratu duen bere izeneko bekaren bitartez eta iaz kaleratu zen "*Un crítico en las Quimbambas*" izeneko liburuaz. Hala ere, Justoren dozenaka lan interesgarri geratzen da oraindik hainbat aldizkaritan sakabanatuta. Momentu hau ez da txarra lan horiek batu eta berriz plazaratzeko. Saia gaitzen!

**Jerardo ELORTZA**



# EDEL

## TAPIZDENDA

*Etzerako artikuluetan aukerarik haundiena eskaintzen dizugu:*

**Alfonbrak, kortinak,  
kortinoiak, koltzak,  
edredoiak, etab.**

Zure bulegoetan giro atsegina behar baduzu, ez ahaztu pertsiana-motarik egokienaren berri eskatzea.

**Bidekurutzeta 14, BERGARA**


# TABERNA ZAHARRA

## Jatetxea

Bazkariak  
eta  
afariak

Tfnoa 76 21 21  
ANGIOZAR





Asteazkeneko toka txapelketan Jubilatuek beren trebezia erakutsi zuten.

### Jokuak Jubilatuetan

Asteazken zehar, eta Santamainako jaien barruan, hainbat ekitaldi izan dira Jubilatuetan: mus txapelketan, Tomas Iturbe eta Felix Egurenekin Joakin Zeziaga eta Eduardo Etxaberi irabazi zieten finala; tutean, Jesus Etxabe eta Martin Guridi izan ziren txapeldun Juan Gimber eta Maximo Hernándezen aurretik; bris-kan, Ramona Zubizarreta eta Pilar Iparragirrek lortu zuten garaipena, bigarren Luis Al-

berdi eta Antonio Iturriaga sailkatu zirelarik; tokan Jose Maria Uribetxeberriak irabazi zuen Maximo Hernández eta Eduardo Gabilondoren aurretik eta, azkenik, atzo goizeko martxa erregulatuan, 27 partaide (3 laguneko 9 talde) izan ziren. Gaur, 6 t'erdietan, bolo txapelketa jokatzekoa zen eta igandean, 5 t'erdietan, sari-ematea egingo da.

### Murala apurtuta

Udaletxeko obrak inguratzen dituen horman jarritako murala apurtuta agertu da egun hauetan. Gogoratuko duzuenek, **Hirigintza Batzordeak Mendia Bizirik** taldeari eskeini zion espazio hori eta talde ekolojistak eskatuta, **Manu Muniategi** margolari bergararrak egindako muralak hainbat eraso izan ditu jadanik. Udaltzaingoaren arabera, "azken asteotako astebukaeretan zenbait eraso izan dira, muralan apurketak eginez eta astean zehar sua ere eman zioten". Oraindik ez da muralaren gaineko inolako erabakirik hartu.



Ezezagun batzuk murala apurtu eta su eman zioten astelehen gauean.



**PINTURAS BERGARA**

Aranerreak, 32 behea. BERGARA.  
Tfnoa eta faxa: 76 11 40

• INDUSTRIARAKO PINTURAK • APAINKETARAKO  
PINTURAK • GARBIKETAK • ERROTULOAK • Etab...





NORA PALMITANO

### Jaialdi hunkigarria eta harri inaugurazioa

Jaialdi ikusgarria eta hunkigarria izan zen ostiralean Mariaren Lagundian. Besteak beste, Taun-Taunen bideoaren aurkezpena eta *sketch* bat, musika emanaldiak, dantzak, mural margotzea, Senideaken omenaldia, bertsolariak, txalaparta... eta beste hainbat ekitaldi izan ziren. Bukatzeko, egun horretan omentzen zuten **Iñigo Martínez "Memin"** zenari buruzko bideo bat eman zen. Larunbatean, berriz, goiko argazkian ikus daitekeenez, bere oroimenezko harria inauguratu zen Irukurutzetan, familiarteko eta lagun presentziarekin.

### Konponketak Irizarren

Azken egunotan hainbat konponketa egiten ari dira **Irizar Etxeko** teilatuan. Dirudienez, orain egun batzuk, teilatuko erlatx edo mensula bat (euskarri bezala dagoen tarteko taula) jausi zen eta orain teilategala gogortzeko lanetan dihardute. Teilategalaren azpitik hainbat taula jarriko dira erorketak ebitatzeko. Hirigintza Batzordeak aste honetan bertan lanak amaitzea espero zuen. Bukatu bezain laister kenduko da Irizar Etxea inguratzen duen andamioa.



## Zertan dihardute ba?



**Aitor Elkoro** 28 urteko pelotari elgetarrak, Retegi II. arekin batera, San Ferminetako pelota txapelketa irabazi zuen, igandean Labrit pelotalekuan jokaturako finalean, Alustiza eta Errandoneari 22 eta 21eko emaitzarekin irabazi ondoren. Partiduak ia 2 ordu iraun zuen (112 minutu) eta, guztira, 1.099 pelotakada on eman ziren. Elgetarrak, igandekoarekin, jarraian bere laugarren txapelketa irabazi du, aurretik Tolosako Ihauteriako txapelketan (Alustizarekin), Bergarako Pentekostetan (Retegirekin) eta Sestaon (Titinekin) garaile izan bait zen. Elgetarrak sasoi onean jarraitzen du.

# MEMESA

ARRASATE 79 42 22 ARETXABALETA



# SFK



# Alazne Pardina

**Bibolin eta pianojolea, 26 urteko bergarar hau Kikaundi Ludotekako arduradunetako bat da. Aurtengo Udalekuetan 3. mailatik 8.era bitarteko 270 neska-mutil ari dira.**

- Haurrak norberarenak ala besteenak?
- Besteenak.
- Neskatilak ala mutilak bihurriago?
- Mutilak bihurriago, neskak gaiztoagoak.
- Injenuitate ala inozentzia?
- Inozentzia.
- Belarrondokoren bat emateko gogoia sentitu duzu inoiz?
- Bai.
- Eta eman?
- Ez.
- Mutilak urdinez eta neskak larrosaz?
- Ez.
- Ze adin izatea nahiko zenuke?
- Daukadana.
- Eta denboran atzera ala aurrera egingo zenuke?
- Atzera.
- Txikitan, zerekin amets?
- Haundi egitearekin.



*"Mutilak bihurriago dira eta neskatilak, aldiz, gaiztoagoak. Aukera izanez gero, aurrera baino denboran atzera egingo nuke. Txikitan haundi egitearekin amets egiten nuen. Musika klasikoa eta rocka gustatzen zaizkit"*

- Egindako azken umekeria.
- Haurrekin nagoenez, egunero egiten ditut.
- Haurrentzako jolas bat?
- "Altxorraren bila".
- Umetako jostailurik gordetzen duzu?
- Jostailurik ez, jolasak bai: kanikak, tronpa...
- Haurtzaroko oroitzapen bat?
- Oraingo haurrekin konparatuz, asko jolastu nuela.
- Zer gosaltzen duzu?
- Kafesnea bollo bat eta "corn-flakes"ekin.
- Meriendarik egiten duzu?
- Bai, bokadiloren bat edo fruta.
- Irten zara inoiz zinetik pelikula amaitu aurretik?
- Lo hartu bai, irten ez.
- Mundiala nork irabaziko du?
- Boliviak nahi nuen baina... Brasilek beharbada.
- Pertsona bat konkistatzeko?
- Onena "al grano" joatea.
- Zer ez zenuke sekula jantziko?
- Triakornioa.
- Musika klasikoa ala rocka?
- Biak.
- Zein talde gustokoen?
- Celtas Cortos.
- Zer gorrotatzen duzu?
- Faltsukeria.
- Beldurra zeri?
- Sugeei.

**iRUDI**  
Erlojudenda  
Bitxitegia  
Ibargarai, 2  
☎ 76 51 65

**GURIDI** Altzariak  
Era guztietako  
altzariak  
Artekale 8, Tfnoa: 76 31 02

**ITXASMENDI**  
Taberna  
Barrenkale 36  
Tfnoa: 76 50 64  
BERGARA

**AGOITZ**  
Tapizdenda  
San Lorentzo 25, Tfnoa: 76 11 58  
BERGARA

ileapaindegia  
eder gela  
disdira  
Masterreka 7 • Tfnoa: 76 00 55

**SUBIJAI**  
Gazteentzako moda  
Irizar, 1 ☎ 76 42 41



# BONOFOTOA



M. A. ELKOROBREZIBAR



## Iker Eguren

Iker Egurenek jaso du aste honetan BONOFOTOko saria, aurreko asteko galdera berak asmatu baitu. Orain dela urte mordo bat, San Martzial egun batez, Bergaran izandako uholde ikaragarrien inguruan galdetzen genuen, hain zuzen ere, ur haundi haiek zein urtetan gertatu ziren. Erantzuna: 1834. urtean. Beraz, aste honetako

**10.000** pezetak Iker Egurenentzat.

Zorionak!!

*Zein da baserri honen izena?*

Izena: \_\_\_\_\_ Abizena: \_\_\_\_\_ Tfnoa: \_\_\_\_\_

**Saria:**  
**10.000 Pzta.**

Moztu paper hau eta  
ekarri astebete baino lehen:

**BERRIGARA**  
**Errotalde Jauregia Bergara**



# ELKAR


## MOTA GUZTIETAKO INSTALAZIOAK



Koldo Elizalde, 8  
BERGARA  
☎ 76 00 00

# ELEKTRAGINTZA

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:



## Kutxa fundazioa




## IBAN RODRIGUEZ JEREZEN GARAILE

Iban Rodríguez bergarar kotxe gidariak denboraldi honetako bere hirugarren garaipena lortu zuen igandean Jerezeko zirkuituan, 16 balbulatako Clio Kopa txapelketaren barruan. Orainarte 5 proba jokatu eta beste 4 geratzen dira korritzeko. Txapelketa amaieran 6 probetako emaitzak hartuko dira kontutan eta, beraz, txapelketa eskuratzeko faborito nagusia da Rodríguez. Bestalde, Pablo Irizar igande honetan Kataluinako Calafat-eko zirkuituan jokatuko den ZX Kopako proban izango da. Martin eta Juan Antonio Egaña anaiek AX Kopan parte hartuko dute.

## XV. BIZIKLETA IBILALDIA DEBARA

Bailarako talde ekolojistek antolatuta, igandean, hilak 17, XV. Bizikleta martxa Debara egingo da. Irteera 10.45etan Plazan.



# IPINTZAKO

nagusiendako III. futbol txapelketa



Amilotx eta Paok de San Juan taldeetako jokalariek partidua amaitu ostean.

## Amilotx txapeldun

**Amilotx taldeak** orain 2 urte bezala, Ipintzako Nagusiendako Futbol Txapelketa irabazi zuen, ostiralean finalean Paok de San Juan taldeari 3 eta 0 irabazi ondoren. Golak Alex Odriozolak (2) eta Mikel Uribesalgok sartu zituzten. Amilotxek

irabazlearen trofeoa (Udal Kirol Zerbitzuak emana) eskuratu zuen, bigarren Paok de San Juan sailkatu zen (Bergara K.E.ren trofeoa), hirugarren Ogizun (Pizinetako tabernaren trofeoa) eta laugarren tokian Osintxu (Ogizunek emandako tro-

feoa). Golegile onena Alex Odriozola izan zen 6 golekin (Berrigararen trofeoa) eta Txipiron taldeko Pablo Gallastegik (53 urte) beterranoari zegokion trofeoa (Etxeberria erlojudenda) eraman zuen. Ikusle dexente izan ziren finalean.

## Bergara eskalada gune

Udal Kirol Zerbitzuak, Pol-Polek eta JARDUNek antolatuta, larunbatean, goizeko 10.30etatik aurrera, Euskadiko Kirol Eskaladako hirugarren proba jokatuko da Bergaran. Lehenbizi sailkatze proba jokatuko da eta arratsaldeko 6etatik aurrera finala Plazan. Txapelketan Euskadin bizi den edozein eskaladerek parte har dezake (aurtego federatu txartela izatea beharrezkoa da) eta gizonezko zein emakumezko klasifikazio txandak izango dira (finalera, gehienez, talde bakoitzetik 8 lagun pasako dira). Izen-ematea Kiroldegian bertan egin beharko da goizeko 9.30etatik aurrera eta partaide bakoitzak 500 pta. ordaindu beharko ditu. Gizonezkoetan, lehen bostek, 40.000 pta., 20.000, 15.000, 10.000 eta 5.000 pta.ko sariak jasoko dituzte eta emakumezkoetan, berriz, 35.000, 15.000 eta 10.000 pta.ko sariak egongo dira lehen hirurentzat. (ARGAZKIA: B. CANTERO)



Beatriz Jimenez Estatuko emakume eskalatzailerik onenetarikoa.





# Urbia-Oltza-Aizkorri

**A**rantzazutik Urbiarako bidea oso argia eta ezaguna denez azalpenak sobran daudela uste dut, hala ere, baten batek bidea ezagutzen ez badu mendizale bati jarraitzea edo galdetzea besterik ez du. Arantzazura gerturatzen diren mendizale gehienak Urbiarantz abiatzen direnez ez duzue inongo arazorik edukiko.

Urbiako lepora heldu ondoren (ordubete) bertako fondara joan beharrean eskumarantz joko dugu harriz markatutako bidea jarraituz, berehala iturri batekin topo egingo dugularik. Bidetxurra jarraituko dugu borda batzuen ondotik pasatu arte. Pixkat aurrerago teilatua bedarrez estalirik duen etxetxo bat (Perusarof) ikusiko dugu alboan. Obelixek bizkarrean eramaten zituen bezalako harri bat duelarik.

Harri txikiz beteriko pista hartu beharrean gorago dagoen pista jarraitu eta pagadian barrena sartuko gara. 5 minutu geroago Oltzako zelaia somatuko dugu. Zelaiaren barrena joko dugu ezkerretara borda pare bat utziz. Zelaiaren bukeran harriz eginiko lerroa segi eta marka gorriak jarraituz igoeraren malda gogorrenei ekingo diegu. Marka hauek ez dira oso argiak lehen partean, ezta bidea ere, beraz marka batetik bestea bilatuz ibiltzea komeni da.

Pagadi barruan bidea arindu egiten denez arnasa berreskuratu-ko dugu bukaeran berriro gogortzen baita. 45 minutu inguru igotzen ibili ondoren Aizkorriko gailurrera helduko gara.

**Aizkorritik ekialdera begiratu ezkerre, eta eguraldiak laguntzen badu, Pirinioak ikusi daitezke bere mendi elurtu eta guzti.**

Aizkorritik ekialdera begiratu eta eguraldiak laguntzen badu Pirinioak ikusi daitezke bere mendi elurtuekin. Lasaialditxo bat egin eta gero Urbiara doan bidetik jeitsiko gara. Horretarako Oltzarantz begiratu eskumatik doan bidea jarraitzea besterik ez dugu. 50 minutuz jeitsi ondoren Urbiako fondan aurkituko gara zerbait jateko aukera izango dugularik.

Bueno, orain Arantzazura itzultzeko ordua heldu zaigu. Fondatik irten eta aldapan gora doan zuhaitz artetik berriro Urbiako lepoan gaude. Arantzazura joateko igotzeko erabili dugun bide berbera hartuko dugu gaurkoan.


**POL-POL Mendizale Taldea**



Aizkorri inguru: San Adriango kobazuloa, paraje zoragarria.



YKOMENTARIOAY



Iñigo ZIARSOLO

"Aurreko urteekin konparatzen badugu, esan dezakegu aurten, parte hartzearen aldetik, jende gehiago ari dela Olinpiadetan. Nesken taldeak ere bestetan baino gehiago dira eta talde mistoak ere osatu dira banaka batzuk. Aurten jendeak gogo haundiz hartu ditu Olinpiadak. Bestalde, jokoek ikusmin handia sortarazi dutela azpimarratuko nuke. Adin guztietako ikusleak inguratzen dira Seminariora zein Plazara. Asteleheneko erlojuaren kontrako txirrindularitza proba oso ikusgarria izan zen, Mongatxurrakek irabazi zuen eta prestatu zuten mailota (kantzontzilotan agertu ziren) oso originala izan zen"

# HERRI OLINPIADAK



Bi aste bete dira dagoeneko Olinpiadak hasi zirenetik. Argazkian, astearteko Herri Kirol saioa.

YSAILKAPENAY

1. Xurruapak ..... 505
2. Diskrepe Peñi .... 495
3. Altos Pornos ..... 395
4. Zoropotrondoak . 315
5. Shaktale ..... 315
6. Mongatxurrak .... 310
7. In The Garden ..... 270
8. Zoko-Toko ..... 250
9. The Avelinos ..... 225
10. Txaharrenak ..... 185
11. Knickers Down ... 165
12. Ganba-Txunga ... 120
13. P. Ta Zapaburuak . 115
14. Txe Bergara ..... 70

YDATORRENASTEKOJOKOAKY

<b>Astelehena:</b>	Boleibola eta Bela jokia	Poligonoko ikastolan
<b>Asteartea:</b>	Eskoba-Hockeya eta Zapi jokia	Seminarioan
<b>Asteazkena:</b>	Herri Kirolak	San Martin plazan
<b>Osteguna:</b>	Ginkana	San Martin plazan
<b>Ostirala:</b>	Mahai jokoak	San Martin plazan
<b>Larunbata:</b>	Amaiera ekitaldia: Herri Bazkaria	San Martin plazan



**IZADI**  
PILI GISASOLA

Osasun eta Dietetikan  
espezializatutako zentrua  
Zurradero 2, behea. Tfnoa: 76 58 83

# AZPEITXI

Aranerreka, 13 behea ☎ 76 55 00

*Jatetxea*





## Angiozarko "Luistarren" kongregazioa

**A**ngiozarko "Luistarren" irteera bateko argazkia duzue goikoa. "Luistarren" kongregazioa 60 bat lagunek osatzen zuten eta urtero eskurtsio bat egiten omen zuten, gehienetan San Pedro egunean. Honako argazki hau orain 40 bat urte Donostiara egindako irteera batean ateratakoa da. Ezkerretik eskumara:

**Makurtuta:** Ildefonso Unzueta, Isidro Gorosabel, Gonzalo Eguren, Jose Mari Azkarate, Felix Inza, Kruz Belastegi (betaurrekoduna), Jose Ruiz de Eginu, Antonio Garmendia, Luis Lonbide eta Juan Mari Loiti.

**Zutik:** Joaquin Aranzabal, Claudio Iribecampos, Genaro Azkarraga, Juan Jose Aranzabal, Raimundo Ugarte, Juanito Garai, Agapito Loidi, Lorenzo Loiti, Ciriaco Elkorobarrutia "Etxague" eta Jose Luis Larrañaga.

**Autobus gainean:** ezezaguna (aparte dagoena), Enrique Elorza, Jose Luis Aranzabal, Luis Mari Elorza eta Maximo Aranzabal.

Argazkia: Gonzalo Eguren

**LETE**

**TOLDOAK**

Zubieta, 36 ☎ 76 12 24  
☎ 76 23 83 ARRASATE



**IGARZA**

**MERZERIA**

**LENZERIA**

Irala, 5 ☎ 76 24 88 BERGARA



**ETXEBIZITZA**

**Pisua** salgai Donostin, Amara Berrin. Eguzkitsua. ☎ 46 36 53 (19-22.00).

**Garajea** salgai Torreku-an. ☎ 76 18 82.

**Pisua** salgai Artzamendin. ☎ 76 44 60.

**Pisua** salgai Bolu 18an. 120 m2. ☎ 76 19 17.

**Pisua salgai** Zubiaurren. ☎ 76 25 19.

**Garajea** hartuko nuke **alokairuan** Tokiederren. ☎ 76 52 45.

Zubiaurren **pisua alokatzen da**. ☎ 76 13 85.

**Garajea salgai** Ibargarai kalean. ☎ 76 00 93.

**Oporrak** Zarautzeko etxe batetan igarotzeko aukera. ☎ 13 28 49.

**Pisua** salgai Martokon. ☎ 76 14 60.

**Pisua salgai** Zubiaurre 23an. ☎ 76 31 49.

**Pisua** salgai Artzamendi 17n. ☎ 76 10 55.

**Pisua** alokatzen da Kruz Gallastegin. ☎ 76 49 87 (eguerdian eta gauez)

**Pisua** alokatzen da San Pedro 22an. ☎ 76 13 23.

**Garajea salgai** Ibargarain. ☎ 76 36 69.

**Pisua** alokatzen da **Jacan**. ☎ 76 43 98.

**Garajea salgai** Kruz Gallastegin. ☎ 76 48 36.

**DENETARIK**

**Bergaran pisua** konpartitzeko neska bat behar da. ☎ 76 30 09 (Araceli).

**Opel Kadett** 1800 salgai. SS-AH. ☎ 76 58 28.

**Kanpin denda** haundia (8 pertsona) salgai. ☎ 76 26 73.

Enkuadernatzeko **prensa** erosiko nuke. ☎ 76 58 28.

**Erleak** saltzen ditut. ☎ 76 34 28.

**Kanpin denda** (2 gela eta portxea) salgai. 2 urte. ☎ 76 58 12.

Korredore **bizikleta** salgai. ☎ 76 54 24.

**ESP Horizon** bajoa eta Marshall JCM 800 anplia salgai. ☎ 76 56 61 (Ibon).

**Sambo kanpin** karroa salgai. Osagaiekin, egoera onean. ☎ 74 19 39 (Marisol edo Marian).

**Neska bat** behar da abuztuaren 8tik 31ra etxea eta bi haur zaintzeko. ☎ 76 57 32 (gauez).

**Etxe**ko konponketak egiten dira prezio onean. ☎ 76 30 10 (Javi Alonso).

**BMW** motoa (K-100 RS) salgai. ☎ 76 12 64.

**Musika ekipoa** (150 w.) salgai. Mahaia eta bi bozgorailu. ☎ 76 62 16 (Ibon).

**Donostian** (Grosen) pisua konpartitzeko bi neska behar dira. ☎ 76 30 00.

**Renault 5 GTL** SS-O **ko-txea** salgai. ☎ 76 30 10.

**Vespa 200 TX** beltza salgai. ☎ 76 53 12.

**LANA**

**OHO** eta **BBB**ko klaseak. ☎ 76 17 85 (Asier).

**OHO, BBB** eta **LH** klaseak. ☎ 76 06 50 (Josean).

**OHO** eta **BBB** klaseak. ☎ 76 24 31.

**Animaliak** zainduko nituzke uztailean. ☎ 76 26 73.

**Ingeles klaseak** ematen ditut (Arantxa). ☎ 76 42 36.

**OHO** eta **ingeles** klaseak. ☎ 76 17 18 (Jesus).

**Matematika**, **fisika**, **kimika** klaseak. ☎ 76 44 34.

**Ingeles Filologia**n lizentziatuak, ingeles klaseak emango lituzke. ☎ 76 17 36.

**Ingelese**zko klaseak ematen dira. ☎ 76 31 36.

**Klase partikularrak**. ☎ 76 50 67.

**OHO** eta **BBB**ko klaseak. ☎ 76 42 08 (Nere).

**Injenieritzako** (1. maila) **fisika** klaseak emateko pertsona behar da. ☎ 76 41 31.

**Ingeles** klaseak ematen ditut. ☎ 76 22 90 (Ainhoa).

**Ingeles klaseak** ematen ditut. ☎ 76 26 63.

**Hildakoak**

*Fidela Gisasola Alkorta*  
uztailak 8, 90 urte  
*Antonio Maria Inziarte*  
uztailak 11, 70 urte

**Jaiotakoak**

*Aste bonetan Epaitegian ez dute jaiotakoak berririk jaso.*

Atsedeen zentrua

**LOKARTU**

Koltxoi-Denda

Orain SORALUZEN



**ZIRIPOT**

Bidekurutzeta 11, Tfnoa: 76 11 41

**ZUBIETA**  
**elektragarintza**

- ✓ Motorren bobinaketa
  - ✓ Era guztietako instalakuntzak
- Kruz Gallastegi, 2 behea  
☎ 76 23 48



# HALTZARI

## FAGOR ALTZARIEN BANATZAILE BAKARRA

Bolu, 24 behea  
Tfnoa eta faxa: (943) 76 30 57

BERGARA  
(Gipuzkoa)



**6** URTEKO  
GARANTIA

# FAGOR



Sukalderako altzariak

## Sukalde zoragarriak!